

Euskal Herriko Unibertsitatea

Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea

Gizarte Langintza Gradua

EMAKUMEOK ESPLOTAZIO OBJEKTO IZATETIK **SUBJEKTU POLITIKO IZATERA**

Zaintza-lanek dakarten pobrezia zein gizarte bazterketa eta honi
aurre egiteko bidea

“La sujeto político mujer, por tanto, sería aquella que se constituye a partir del reconocimiento y toma de conciencia de que las condiciones de desigualdad y discriminación no son inherentes a la condición humana.

(Arias, González eta Hernández, 2009)”

Irakasgaia: Baztertze eta Gizarteratze Mekanismo Prozesuak

Irakaslea: Ixone Fernandez de Labastida

Idoia Torrente Armentia

Data: 2022/05/31

Azken urteetan zaintza lanak elkarrizketa ugaritan presente izan ditugu, gehienetan gure gizartearen jokatzeko paper garrantzitsua azpimarratuz. Horren adibidetzat har dezakegu, Covid-19 birusaren pandemia testuinguruan guztien ahoetan errepikatua izan den zaintzaren beharrezkotasuna. Hau honela, guztiok pentsatuko genuke erreproduktzio lana gizartearen euskarri dela. Hortaz, zergatik da egungo gizarte eredu kapitalistan hain debalatueta dagoen lan arloa?

Izan ere, Euskal Herrian zaintza lanen arloa pobreziarekin lotu genezake kasu gehienetan, guztietan ez esatearren. Gainera, ageriko da guztiz feminizatutako esparrua dela, landa-lan koaderno egiterakoan, zaintza lanak burutzen zeuden pertsonen gehiengoa emakumezkoa zela eta horietatik, kopuru handi bat atzerritarra zela behatzeko aukera izan nuen.

Zaintza lanek gizartearen agindu bati erantzuten diote, giza bizitzaren ugalketa eta iraunkortasuna bermatzea helburu duen lan arloan datza. Zaintza feminitatearekin, intimitatearekin eta pribatutasunarekin lotua izan da beti, emakumeon betebeharrak moraltzat jo izan dena. (Carrasquer, 2020)

“Generoa performatiboa delako ikuspegiak agerian utzi nahi zuen generoaren barne-esentziazat dugun hori ekintza multzo jarraitu batek eraikitzen duela” (Butler, 1999) ondorioz, zaintza lana emakumearen eginbehar gisa definitua izateak gizarte eraikuntza argi bati egiten dio erreferentzia.

Zaintzaz jarduten dugunean, soldatapeko lanaren barnean, hau da, soldata baten truke, eta hortik at kokatzen den lanaz hitz egin dezakegu. Baina saiakera honetan soldatapeko lanaren baitako lan esparruaz arituko naiz, bereziki, zaintzen profesioan dabilzan emakumezkoengan nagusitzen den pobrezia zein bazterketaz.

Pobrezia eta gizarte bazterketaren terminoak dominatzaile eta dominatu dikotomiaren oinarrian kokatu behar ditugu. Gizarte eredu kapitalistak, klase sozialen eta hauen baitako subjektu ezberdinen arteko ezberdintasuna xede du, klase dominatzailearen interesen arabera egikaritzen sistema.

Desde una óptica marxista clásica, en la que consideramos a la sociedad formada por una infraestructura económica, una estructura social y una superestructura ideológica, veremos que la condición de marginado vendría determinada, en última instancia, por una marginación infraestructural. (Romaní, 1996)

Pobrezia eta gizarte bazterketaren ideiak elkarlotuak daudela esango nuke, maiz elkarrekin aztertu izan diren faktoreak direla agerikoa da. Monrealen (2014) hitzetan: gizarte bazterketak gero eta biztanle gehiagok oinarritzko eskubide sozialak jasotzea mugatua izateari egiten dio erreferentzia, bestalde pobrezia, oinarritzko beharrezkoak asetzeko ezintasuna duten herritarrei. Hala ere, esango nuke, pobrezia gizarte bazterketa dakarrela.

Ondorioz, Euskal Herrian indarrean daukagun gizarte ereduagatik, kapitalismoagatik, bazterketa eta pobrezia egoera batean egongo diren herritarrak existitzea errealitate gordina izango da. Goi klasearen etekinerako lan eta subjektu debalatuak, hau da, gutxietsiak, sortuz, aztertuko ditudan emakumeok

aurrera eramaten ditugun zaintza lanak kasu. Hori dela medio, etsipena nagusitzen da etorkizunean, irtenbide eza balego bezala, hala ere, entsegu honetan, emakumeok subjektu politiko bilakatzea alternatiba eraikitzekeo tresna dela aldarrikatuko dut.

La sujeto político mujer, por tanto, sería aquella que se constituye a partir del reconocimiento y toma de conciencia de que las condiciones de desigualdad y discriminación no son inherentes a la condición humana, que son injustas y evitables, y que es posible actuar con el propósito de impedir su continuidad: confronta entonces las relaciones de poder entre los géneros. (Arias, González eta Hernández, 2009)

Aurretik azaldu bezala pobreziak oinarrizko beharrak asetzeko gaitasun ezan dauka funtsa, hortaz, beharrezkoa da egun gizateriak behar gisa identifikatzen duena ezagutzea. Gaur egungo kontsumoaren gizartean, behar eta desioaren arteko muga ezkutuan kokatzen da, beraz, konplexutasun handiko auzi gisa seinalatu dezakegu.

Beharrez hitz egiteko garaian mailak bereiztea izan da ohikoena, honela, lehen mailako eta bigarren mailako beharrak banatu izan dira. Lehen mailako beharrei dagokionean, bizirauteko oinarrizko faktoreei egiten die erreferentzia, hala nola, elikatzeko beharra. Beste alde batetik bigarren mailako beharrak ditugu, haren jatorria esparru sozialean kokatuko litzatekeena, hala nola, behar integratzaileak. Behar baten asetzeak beste baten sorrera ekarriko du, amaiera gabeko prozesua izanik. (Alonso, d/g)

Es la estructura social la que determina el orden de prioridad de las necesidades, de tal manera que históricamente han sido desdeñadas las más elementales necesidades biológicas para grandes masas de individuos y, por el contrario, han funcionado mecanismos políticos y han sido satisfechos los más refinados caprichos para élites más o menos numerosas. (Alonso, d/g)

Hori dela-eta, aurretik esan bezala, pobreziak gizarte bazterketa dakarrela deritzot, izan ere, izaki sozialak garen heinean gainerakoekin harremana izatea behar bat bilakatzen da, hau da, guretzako sozializatzea ezinbestekoa da. Hortaz, egun sozializazio esparruak kontsumoaren logikaren baitan egikaritzen diren heinean, pobreziak sozializazio eza dakarrela esango nuke, hots, gizarte sareak eraikitzekeo ezinasuna. Azken finean, gizartetik baztertua geratzeko prozesua.

Hau zaintza lanarekin lotuz, landa-lan koadernoaren bidez behatu ahal izan nuena aipatu nahiko nuke, kalean zaintzaren inguruko jarduna burutzen ikusi nuen pertsonen artean kopuru handi bat adineko pertsonen zaintza gauzatzen zegoen. Langile profil hau oro har, 30-50 urte inguruko emakume atzerritarrean oinarritzen zen.

Gaur Lakuntzara bueltatzerakoan, herrian denbora gutxi egon arren, hiru pertsona adineko haren zaintzaileekin ikusi ditut. Hiru zaintzaileak emakumezkoak eta jatorri latino-amerikarrekoak direla konturatu naiz, horietako bik 40 urte inguru izango dituzte, hirugarrenak aldiz 30 inguru. Gainera, memoria pixkat egiterakoan konturatu naiz herrian adineko pertsonekin lanean dauden gehienak, denak ez esatearren, perfil antzekoa dutela. (Torrente, 2022)

Pertsona helduen lan arloa zaintzari eskainitako lan indar guztien artean baldintzarik txarrenak jasotzen dituztena da, lan iragarrezin eta noizbehinkakoa da, babes sozial eta lan babes txikia izanik. (Castellano, 2019) Izendatutakoari gehituz gehiengoa atzerritarra dela, Euskal Herrian arlo honetako langileentzako integratua egoteko oztupoak handitu egiten direla deritzot.

Ondorioz, sektore honetan jarduten duten emakumeak, gehiengoa atzerritarrak, haien soldata baxu eta ezegonkorrengatik pobrezia kondenatuak izateaz gain, gizarte bazterketa egoera batean aurkitzen dira, haien denboraren gehiengoa zaintza lanetara (soldatepekoa eta hemendik at kokatzen dena) bideratzen dutelako eta bigarren mailako behar gisa identifikatu diren horietako batzuk, hala nola, integratze beharrak, asetzeko ezintasuna dutelako.

Azaldutako hau, zehazki emakume atzerritarrengan zentratzen badugu, arrazakeria modernoaz hitz egitea beharrezkoa da, honen aburuz, herri ezberdinetako kideek eremu berdinean bizitzeko aukera badute ere, kultura dominatzaile eta kultura dominatuak bereiziko dira, haien artean berdintasunean oinarritutako elkarbizitza ezinezkoa bihurtuz. (Flecha, 1999)

El racismo moderno era característico de la sociedad europea industrial. En los sesenta, los y las inmigrantes eran canalizados hacia los trabajos peor pagados. El mercado laboral necesitaba personas de otras culturas para hacer aquellos trabajos que los ciudadanos medios consideraban indeseables y la idea de la desigualdad entre las razas legitimaba esta explotación. (Flecha, 1999)

Gizarte prekapitalistetatik jada generoaren baitako eraikuntza burutzen joan ziren, “*barne ezaugarritzat dugun hori gorputz-ekintza jakin batzuen bidez aurreikusten eta sortzen dugun zerbait dela, natural bihurturiko keinuen haluzizantziozko efektu bat, azken batean.*” (Butler, 1999) Honela, emakumeoi zenbait ezaugarri egotzi zaizkigu: zaintzaile, zintzo, sentikor, ixil... Guztiz despoltizatuz gure irudia, inoiz ez eraldaketarako subjektu gisa seinalatuz emakumeok, are gutxiago emakume inmigranteen kasuan, zeinak haien papera Euskal Herrira lekualdatzean bertakook burutu nahi ez ditugun lanak egitera mugatu den. “Los inmigrantes son tenidos en cuenta sólo para aquellas posiciones que la gente europea no quiere.” (Flecha, 1999)

Una de las preocupaciones de las mujeres, que compartimos desde nuestro análisis socio-antropológico, era la imagen que los medios de comunicación proyectan de las

“mujeres inmigrantes”, una imagen peyorativa y victimizante que, a su juicio y al nuestro, en poco se corresponde con las realidades complejas, cambiantes y diversas que viven las mujeres residentes en territorio español procedentes de otros países. (Gregorio, 2014)

Aipatutako honek zaintza lanen arloan jarduten duten emakumeen pobrezia zein gizarte bazterketa egoera betikitzea ahalbidetzen du, haien egoera zaugarria gainditzeko antolatzeke oztopo handiak aurkitzen baitituzte. Euskal Herrian badira zaintza esparruan lan-baldintza hobekak aldarrikatzen dauden emakumeak, horren adibide gisa aurkezten dut landa-lan koadernoan azaldutako albistea, non Aita Menni ospitaleko langileek haien lan-baldintzak hobetzeko egindako greba ikusten den.

El grado de autonomía que alcanza un sujeto no puede separarse del grado de autonomía del grupo social al cual pertenece. Por ello, la lucha no es individual sino colectiva. En este sentido, la construcción de un sujeto político femenino tiene además la tarea democrática de articularse con otros grupos subalternizados que luchan por la reivindicación de sus derechos, por el logro de la igualdad reconociendo sus diferencias. (Falconí, 2019)

Ondorioz, berriz ere nire hipotesian berretsi egiten naiz, esparru honetan lan egiten duten emakumeak subjektu politiko bezala garatzea, egungo gizartak kondenatzen dituen pobrezia eta gizarte bazterketa gainditzeko modu gisa definitzen baitut. Haien lan-eremutik, aurretik esan bezala, gainerako eremuekin elkarlotuak eta beharrezkoa denean elkarlanean arituz, hau da, klase batasunaren baitako ideian oinarrituz, beharrezkoak dituzten lan- zein bizi-baldintza hobekuntzak aldarrikatuz.

Izan ere, soilik eraldaketa integralaren bidez lortuko da emakume langileon duintasun eta askatasun erreala, zein orokorrean, gizateria osoaren ongizate unibertsala. Horretarako, emakumeok subjektu politiko gisa izanik, eraldaketa prozesua gaurdanik abiatzea beharrezkoa da. Hau posible izan dadin, proiektu ezberdinak aurrera eramatea eta hauek azken helburu politiko beraren baitan gauzatzea beharrezkoa da.

Otras arpilleras tomaron también la noción de igualdad para expresar sus reivindicaciones, si bien lo hicieron desde la concepción más abstracta de ideal humano, relacionando la igualdad con la libertad y la paz. (Gregorio, 2014)

Beraz, emakumeok subjektu politiko gisa garatzeak hainbat ekarpen egin ditzake ongizatearen lorpenean azken batean, eta bizi- zein lan-baldintzen hobekuntzari epe motz-ertainean.

Subjektu politiko izateak, alde batetik, gizarte-errealitatea eraikuntza eta eraldaketa iraunkor gisa definitzeko aukera ematen digu, errealitatearekiko eta honen aldaketarekiko kontzientzia jasoz. Hari beretik, gizarte-errealitatearen ezagutzaren aurrean, subjektuak subjektu-posizio bat edo gehiago hartu ditzake: emakumea, beltza, txiroa... Gainera, subjektu politiko gisa garatzean, ekintza politikoak

eszenaratzeko aukera irekitzen zaigu, guztion ongizatearen alde eginda. (Arias, González eta Hernández, 2009)

Saiakerari amaiera emateko hasiera planteatutako gizarte eraldaketa posible izatearen ideiarekiko etsipena gogora ekarri nahiko nuke. Esan bezala, emakumeak subjektu politiko gisa garatzeak eta honen baitan eraldaketa prozesua abiatzeak eraldaketarako aukera irekitzen baitugu.

Quizá lo más definitorio de la condición de exclusión social es que implica que no se reconoce a las personas afectadas la capacidad de actuar, decidir o evaluar por sí mismas. No son consideradas interlocutoras válidas. (Dolores, 2004)

Genero eraikuntzak inposatzen dizkigun ezaugarriak apurtzea beharrezkoa da, jarduteko, erabakitze eta ebaluatze gai bagarelako, emakumeok ere subjektu politiko izan gaitzelako eta izan behar garelako. Zaintza lanen esparrua politizatu ezean, ezinezkoa izango delako lan- zein bizi-baldintzetan hobekuntzak lortzea.

Gizarte kapitalistaren logikatik at antolatzea eta horretarako borroka prozesua abiatzea ezin dugu utopia bezala ulertu. Egun badaude diruaren logikatik at antolatzen diren eremuak, horren adierazle daukagu Senegaleko (Afrika) Grand-Yoff hiriko antolaketa.

Más allá del pluriempleo y el no profesionalismo, lo que choca al observador de la *aeconomía* neoclánica es la energía y los recursos dedicados a las relaciones sociales. Los encuentros, las visitas, las recepciones o las charlas toman un tiempo considerable. Prestar, deber, dar, recibir, ayudar, pasar un pedido, entregar... ocupan una parte importante del día, sin hablar del tiempo dedicado a la fiesta, a la danza, al juego... (Latouche, 1997)

Izan ere, Grand-Yoffen harreman sozialak eta ondorioz, herritarren arteko zaintza kokatzen da erdigunean, gizabanako bakoitzak momentuan egin dezakeen ekarpena eginez. Honek, logika kapitalista hankaz gora jarriko luke, “Las políticas de este modelo urbano no se basan en las necesidades de la población o en otras cuestiones sociales, sino en la acumulación de capital a través del propio crecimiento de la ciudad” (Monreal, 2014) eta hor dago gure helburua, zaintza lanetan jarduten dutenei pobrezia eta gizarte bazterketara kondenatzen dituen gizarte eredua hankaz gora jartzea, berdintasun eta ongizate unibertsean oinarrituko den Euskal Herria eraikitze.

Lo que quiero mostrar es que me gustaría que no hubiese distinciones ni de raza, ni de color, y la libertad y la igualdad para todo el mundo, unión libertad e igualdad para todo el mundo. Que no haya distinciones ni de cultura... que nos acepten con nuestra cultura y nuestro color diferente. No cambiar el mundo para que todos seamos iguales en un mismo..., cambiar el mundo para todos que nos veamos a todos iguales. Que no

porque seamos chinos o porque seamos pakistaníes hay que hacer diferencias. El título de la obra es eso que he escrito, unión, igualdad, libertad. (Gregorio, 2014)

“<<El espacio no es neutral y [...] está relacionado con el poder económico, cultural y social, poder que dicta las normas del mismo>> (Cevedio, 2003)” (Dolores, 2004) Pobrezia zein gizarte bazterketa gainditzeko, egungo boterearen aurrean kontraboterea eraikitzen joatea nahitaezkoa da, gizarte osoaren eta bereziki zaugarri dauden sektoreen, zaintza esparruko emakumeak kasu, bizi- eta lan-baldintzak etengabe hobetzeko antolatu eta borrokatuz.

BIBLIOGRAFIA

- Alonso, Luis Enrique (d/g). *La producción social de la necesidad y la modernización de la pobreza: una reflexión desde lo político*.
- Arias, Viviana; González, Luis Eduardo eta Hernández, Nohema (2009). *Constitución de sujeto político: historias de vida política de mujeres líderes afrocolombianas*. Bogotá: Univ. Psychol, 8.libururkia, 639-652.orr. Hemendik eskuratua:
<http://www.scielo.org.co/pdf/rups/v8n3/v8n3a5.pdf>
- Butler, Judith (1999). *Gender Trouble*.
- Carrasquer, Pilar (2020). *El redescubrimiento del trabajo de cuidados: Algunas reflexiones desde la sociología*. CLACSO. Hemendik eskuratua:
<https://www.jstor.org/stable/pdf/j.ctv1gm038x.7.pdf>
- Castellano, Mainer (2019). *Zaintzaren ekonomiaren azterketa: nazioarteko testuingurutik EAE-ra*. Bilbo: Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (UPV/EHU). Hemendik eskuratua:
https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/40465/GRAL_ADE.pdf?sequence=8&isAllowed=y
- Dolores, Juliano (2004). *Marginación y exclusión en la construcción de género*. In “Excluidas y marginales”. 23-41.orr. Madrid: Cátedra.
- Falconí, María (2019). *La política no tiene rostro de mujer: claves para entender el sujeto político femenino*. Espacios Públicos, 2.libururkia, 171-177.orr. Hemendik eskuratua:
<https://www.redalyc.org/journal/676/67668476009/67668476009.pdf>
- Flecha, Ramón (1999). *Racismo moderno y postmoderno en Europa: enfoque dialógico y pedagogías antirracistas*. Reis 94/01, 17-103.orr.

- Gregorio, Carmen (2014). *(De)construyendo la categoría “mujeres inmigrantes”*: de objetos de discurso a sujetos políticos. In Mendiá, Irantzu; Luxan, Marta; Legarreta, Matxalen; Guzmán, Gloria; Zirion, Iker eta Azpiazu, Jokin (Eds.) “Otras formas de (re)conocer. Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista”. 161-175.orr. Bilbo: UPV/EHU.

- Latouche, Serge (1997). *Estrategias de autogestión en Grand-Yoff: Ensayo sobre la economía vernácula*. In “La otra África: Autogestión y apaño frente al mercado global”. 189-225.orr.

- Monreal, Pilar (2014). *Pobreza y exclusión social en Madrid: Viejos temas y nuevas propuestas*. Madrid: Revista de Antropología Iberoamericana, 9.libururkia, 162-181.orr.

- Román, Oriol (1996). *Antropología de la marginación: Una cierta incertidumbre*. In Prat, Joan eta Martínez, Ángel (Eds.) “Ensayos de antropología actual”, 303-315.orr. Barcelona: Ariel.

- Torrente, Idoia (2022). *Landa-lan koadernoak: zaintza lanak*. Gasteiz: Lan Harremanak eta Gizarte Langintza Fakultatea (UPV/EHU)